

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **2008/30/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko martxoaren 11koa, urteko kontuen eta kontu bateratuen legezko auditoriari dagokion 2006/43/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez.**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/30/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008, por la que se modifica la Directiva 2006/43/CE, relativa a la auditoría legal de las cuentas anuales y de las cuentas consolidadas, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 81/53, 2008/3/20koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2008/30/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2008ko martxoaren 11koa,

**urteko kontuen eta kontu bateratuen legezko auditoriari dagokion 2006/43/EE Zuzentaraua aldatzen duena,
Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez.**

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidetza eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 44. artikuluko 2. paragrafoko g) idatz-zatia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eta, tratatuko 251. artikuluko ⁽²⁾ araututako prozedura betez,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 2006/43/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak ⁽³⁾, xedatzen du, zein diren 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren arabera onartu beharreko neurriak. Erabaki horretan ezarrita dago zein prozedura bete behar dituen Batzordeak ⁽⁴⁾ berari dagozkion betearazte-eskumenak baliatzeko.

(2) 2006/512/EE Erabakiak 1999/468/EE Erabakia aldatu zuen. Lehenengoan, Tratatuaz 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko zein neurri orokor hartu behar diren kontrolatzen duen arautze-prozedura barneratzen zen. Zenbaitetan elementu horietako batzuk ezabatuz edo egintza funtsezkoak ez diren beste elementu batzuekin osatuz.

(3) 2006/512/EE Erabakiari dagokionez, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen ⁽⁵⁾ Adierazpenaren arabera, Tratatuaz 251. artikuluari jarraiki hartu eta indarrean dauden egintzetan kontrolatzen arautze-prozedura aplikatu ahal izateko, egintza horiek aplikatu beharrekoak diren prozeduren arabera hartu behar dira.

(4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da honakoak bete dituzten: 2006/43/EE Zuzentaraua aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, bereziki, auditoriaren zereginaren gaineko konfiantza bermatzea eta etika profesionalaren, kalitatea kontrolatzeko sistemen, independentziaren eta objektibotasunaren printzipioei dagozkien betekizunak uniformeki aplikatzen direla ziurtatzea, auditoreentzako ezagutza teorikoaren proga barneratu behar duten gaien zerrenda egokitzea, auditoriari dagozkion nazioarteko arauak ezartzea eta urteko kontuei edo kontu bateratuei buruzko auditoria-txosten guztientzako arau bat finkatzea, eta hirugarren herrialdeetara zuzenean igorritako agirien kasu bereziak zein diren zehaztea. Neurri horiek orokorrak eta 2006/43/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatuz), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrolatzen arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(1) EO C 161, 2007.7.13koa, 45. or.

(2) Europako Parlamentuaren 2007ko azaroaren 14ko irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko martxoaren 3an hartutako Erabakia.

(3) L 158 EO, 2006.6.9koa, 87. or.

(4) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. Erabaki hori honek aldatu zuen: 2006/512/EE Erabakiak (EO L 200, 2006.7.22koa, 11 or.).

(5) EO C 255, 2006.10.21ekoa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(5) 2006/43/EE Zuzentarauak denbora-muga bat ezartzen du Batzordeari dagozkion betearazte-eskumenetarako. Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiari dagozkion Adierazpenean azaltzen dutenez, 2006/512/EE Erabakiak denon artean erabakitzeko prozeduraren arabera hartutako neurrien aplikazioa kontrolatzeko Europako Parlamentuaren asmoari irtenbide horizontala eta egokia ematen dio, eta, horrenbestez, inolako denbora-mugarik gabe eman behar zaizkio betearazte-eskumenak Batzordeari. Halaber, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak adierazi zuten, Batzordeari betearazte-eskumenak lagatzeko epe jakin bat aurreikusten duten tresnetan barneratzen diren xedapenak indargabetzeko proposamenak ahalik eta denbora laburrenean hartzea bermatuko lukete. Kontrol-dun arautze-prozedura sartu ondotik, 2006/43/EE Zuzentaraan denbora-muga hori ezartzen duen xedapena ezabatu egin behar da.

(6) Batzordeak esleitu zaizkion betearazte-eskumenei dagozkien xedapenen funtzionamendua ebaluatu behar du aldizka, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak eskumen horiek nahikoa zabalak diren eta Batzordeari ezarritako prozedurazko betekizunak egokiak diren eta eraginkortasuna nahiz erantzukizun demokratikoa bermatzen duten erabaki ahal izateko.

(7) Horrenbestez, egokia da 2006/43/EE Zuzentaraia aldatzea.

(8) Zuzentaraia honen bitartez 2006/46/EE Zuzentaraan egin beharreko aldaketak teknikoak direnez eta komitearen prozeduran soilik eragiten dutenez, estatu kideek ez dituzte, ezinbestez, beren zuzenbidean sartu behar. Horrenbestez, ez da beharrezkoa horretarako xedapenik ezartzea.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2006/43/EE Zuzentaraan aldaketa hauek egin dira:

1) 8. artikuluan, 3. paragrafoa honela aldatu da:

a) honakoa ezabatzen da: «48. artikuluan, 2. paragrafoan, aipatzen den prozeduraren arabera»;

b) hurrengo esaldia eranstean da:

«Zuzentaraia honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek, 48. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

2) 21. artikuluan, 2. paragrafoa honela aldatzen da:

a) honakoa ezabatzen da: «48. artikuluan, 2. paragrafoan, arautzen den prozeduraren arabera»;

b) hurrengo esaldia eranstean da:

«Zuzentaraia honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraia bera ere osatuz) 48. artikuluan, 2 bis paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

3) 22. artikuluan, 4. paragrafoa honela aldatzen da:

a) honakoa ezabatzen da: «48. artikuluan, 2. paragrafoan, arautzen den prozeduraren arabera»;

b) hurrengo lerrokada eranstean da:

2008/30/EE zuzentaraia (EBren Egunkari Ofiziala, L 81/53 2008/3/20koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraua bera ere osatuz), lehenengo lerrokadan aipatzen direnak, 48. artikuluan, 2 bis paragrafoan, agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

4) 26. artikulua honela aldatzen da:

a) lehenengo paragrafoan, «48. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen den prozeduraren arabera» esaldiaren ordez, «48. artikuluko 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera» esaldia ezartzen da.

b) 2. paragrafoa honela aldatuta gelditzen da:

i) honakoa ezabatzen da: «48. artikuluan, 2. paragrafoan, agindutako prozeduraren arabera»,

ii) hurrengo lerrokada eranstean da:

«Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraua bera ere osatuz), lehenengo lerrokadan aipatzen direnak, 48. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

5) 28. artikuluan, 2. paragrafoa honela aldatzen da:

a) honakoa ezabatzen da: «Zuzentarau honetako 48. artikuluan, 2. paragrafoan aipatzen den prozeduraren arabera»;

b) hurrengo esaldia eranstean da:

«Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraua bera ere osatuz) 48. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

6) 29. artikuluan, 2. paragrafoa honela aldatzen da:

a) honakoa ezabatzen da: «48. artikuluan, 2. paragrafoan aipatzen den prozeduraren arabera»;

b) hurrengo esaldia eranstean da:

«Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraua bera ere osatuz) 48. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

7) 36. artikuluan, 7. paragrafoa honela aldatzen da:

a) honakoa ezabatzen da: «48. artikuluan, 2. paragrafoan arautzen den prozeduraren arabera»;

b) hurrengo esaldia eranstean da:

«Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraua bera ere osatuz) 48. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

8) 45. artikuluan, 6. paragrafoa testu honek ordeztzen du:

«6. Artikulu honetako 5. paragrafoan, d) idatz-zatian xedatzen dena uniformeki aplikatzen dela bermatzeko, bertan aipatzen den baliokidetasuna Batzordeak ebaluatuko du Estatu kideen lankidetzarekin; Batzordeak 48. artikuluan, 2. paragrafoan agindutako arautze-prozeduraren arabera hartuko du dagokion erabakia. Estatu kideek artikulu honetako 5. paragrafoan, d) idatz-zatian aipatzen den baliokidetasuna ebaluatu ahal izango dute, Batzordeak horri buruzko erabaki bat hartzen duen arte.»

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Ildo horretatik, Batzordeak baliokidetasun-irizpide orokorrak ezartzeko neurriak hartu ahal izango ditu, 22, 24, 25, eta 26. artikuluetan aipatzen diren xedapenei jarraiki. Xedapen horiek hirugarren herrialde guztietan aplikatu daitezke eta Estatu kideek nazio barruan baliokidetasuna ebaluatzeko erabili behar dituzte. Irizpide horietan ezingo dira 22, 24, 25 eta 26. artikuluetan ezartzen diren eskakizunak alde batera utzi. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraua bera ere osatuz), 48. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

9) 46. artikuluan, 2. paragrafoa testu honek ordeztzen du:

«2. Artikulu honetako lehenengo paragrafoan xedatzen dena uniformeki aplikatzen dela bermatzeko, bertan aipatzen den baliokidetasuna Batzordeak ebaluatuko du Estatu kideen lankidetzarekin; Batzordeak 48. artikuluan, 2. paragrafoan agindutako arautze-prozeduraren arabera hartuko du dagokion erabakia. Estatu kideek artikulu honetako 1. paragrafoan aipatzen den baliokidetasuna ebaluatu ahal izango dute edo beste estatu kide batzuek egindako ebaluazioak bere egin, Batzordeak horri buruzko erabaki bat hartzen duen arte. Batzordeak artikulu honetako lehenengo paragrafoan agindutako baliokidetasun-betekizuna ez dela betetzen ebatzen badu, eragindako auditoreei edo auditoria-entitateei auditoria egiten jarraitzeko baimena eman diezaike, dagokion Estatu kideak ezarritako baldintzetan eta iraupen egokia duen trantsizio-epe batez.

Ildo horretatik, Batzordeak baliokidetasun-irizpide orokorrak ezartzeko neurriak hartu ahal izango ditu, 29, 30 eta 32. artikuluetan aipatzen diren xedapenei jarraiki. Xedapen horiek hirugarren herrialde guztietan aplikatu daitezke eta Estatu kideek nazio barruan baliokidetasuna ebaluatzeko erabili behar dituzte. Irizpide horietan ezingo dira 29, 30 eta 32. artikuluetan ezartzen diren eskakizunak alde batera utzi. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraua bera ere osatuz), 48. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

10) 47. artikulua honela aldatzen da:

a) 3. paragrafoa testu honek ordeztzen du:

«3. 1. paragrafoan, c) idatz-zatian xedatzen dena uniformeki aplikatzen dela bermatzeko, bertan aipatzen den egokitzapena Batzordeak ebaluatuko du Estatu kideen lankidetzarekin; Batzordeak 48. artikuluan, 2. paragrafoan agindutako arautze-prozeduraren arabera hartuko du dagokion erabakia. Estatu kideek Batzordearen erabakiari jarraitzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte.

Egokitzapenaren ebaluazioa egiteko 36. artikuluko betekizunak edo funtsean antzekoak diren erantzun funtzionalak hartuko dira oinarritzat. Ildo horretatik, Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko (Zuzentaraua bera ere osatuz) eta eskumeneko agintarien arteko lankidetzaren bideratzeko helburua duen edozein neurri, 48. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko da.»;

b) 5. paragrafoa honela aldatuta gelditzen da:

i) honakoa ezabatzen da: «48. artikuluan, 2. paragrafoan aipatzen den prozeduraren arabera,».

ii) hurrengo esaldia eranstean da:

«Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri hori (Zuzentaraua bera ere osatuz), 48. artikuluan, 2 bis paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar da.».

11) 48. artikulua honela aldatzen da:

a) honako paragrafo hau sartzen da:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«2 bis. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikagarriak, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere bete egingo da».

b) 3 eta 4. paragrafoak testu honek ordeztu ditu:

«3. Beranduenez, 2010eko abenduaren 31n, eta hortik aurrera, gutxienez, hiru urtero, Batzordeak bere betearazte-
eskumenei dagozkien xedapenak berrikusiko ditu eta txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta
Kontseiluari, eskumen horien funtzionamendua azalduz. Txosten horretan, Batzordeak Zuzendarau honetan
aldaketak proposatzeko beharra aztertuko da bereziki, berari esleitu zaizkion betearazte-
eskumenak behar bezala mugatzen direla bermatzeko. Aldaketa sartzeari edo ez sartzeari dagokion ondorioarekin batera, arrazoien
xehetasuneko azalpena barneratuko da. Beharrezkoa balitz, txostenarekin batera legegintza-
proposamen bat erantsiko da, Batzordeari betearazte-
eskumenak esleitzeari buruzko xedapenak aldatzeko.».

2. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzendarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

3. artikulua

Hartzaileak

Zuzendarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean, Presidente H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, Presidente J. LENARCIC